XEDAPEN OROKORRAK

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

5363

EBAZPENA, 2015eko abenduaren 1ekoa, Euskadiko Prezioen Batzordearena, Metro Bilbao SA enpresak ematen dituen zerbitzuen 2016. urterako tarifak onartzekoa.

Euskadiko Prezioen Batzordeak, 2015eko abenduaren 1ean egindako bilkuran hartu duen erabakiaren xedapenak argitaratzen dira, guztiek jakin ditzaten.

ERABAKIA

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzan sarrera eman zaio Metro Bilbao SA enpresak aurkeztutako eskariari. Eskari hori enpresa horren zerbitzuen 2016. urterako ekitaldirako tarifak berrikustekoa zen.

Metro Bilbao SA enpresak ematen dituen zerbitzuei dagozkien tarifak prezioak kontrolatzeko araudiari loturik daude, «autonomia erkidegoko prezio baimenduak» modalitatean, ekainaren 7ko 7/1996 Errege Lege Dekretuaren (ekainaren 8ko BOE, 139. zenbakia) 16.4 artikuluari jarraikiz.

Euskadiko Prezioen Batzordeari dagokio eskumen hori otsailaren 2ko 35/2010 Dekretuak, Euskadiko Prezioen Batzordea arautzen duenak (otsailaren 16ko EHAA, 31. zenbakia) eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2010eko ekainaren 15eko Aginduak, baimendutako prezioak eta jakinarazitako prezioak berrikusteko prozedurari buruzkoak (uztailaren 6ko EHAA, 128. Zenbakia) xedatutakoaren arabera.

2010eko ekainaren 15eko Aginduaren 9.1 artikuluaren arabera, tarifen indarraldia urtebetekoa izango da, gutxienez. Hala ere, bigarren paragrafoak honako hau esaten du: «Espedientean egiaztatutako gorabehera bereziak sortzen badira, Euskadiko Prezioen Batzordeak, ofizioz parte interesdunak eskatuta, indarraldi txikiagoko tarifak baimendu ahal izango ditu, nahiz eta igaro gabe egon 1. paragrafoan zehaztutako aldia».

Aipatutako arauak ekonomia-oreka jakin bat lortzekoak dira. Gainera, bizitza-kostuarekiko prezioak osatzeko tresnak zaintzekoak ere badira.

2016. urterako aurkeztu diren tarifak berrikusteko espedientea aztertuta, tarifak nahikotzat jotzen dira, eta zerbitzua ematearen kostu-egituraren barruko kontzeptuetara egokitzen direla uste da.

Horrenbestez, Euskadiko Prezioen Batzordeak honako hau erabaki du:

Lehenengoa.– Metro Bilbao SA enpresak ematen dituen zerbitzuen 2016. urterako tarifak onartzea, Balio Erantsiaren Gaineko Zerga eta Bidaiarien Derrigorrezko Asegurua barne direla. Hona hemen kontzeptuak eta zenbatekoak:

Joanaldia gune 1	1,50
Joanaldia 2 gune	1,70
Joanaldia 3 gune	1,75

Creditrans gune 1	0,87
Creditrans 2 gune	1,04
Creditrans 3 gune	1,15
Super 50 – gune 1	30,40
Super 50 – 2 gune	35,70
Super 50 – 3 gune	40,15
Hilekoa gune 1	35,30
Hilekoa 2 gune	42,00
Hilekoa 3 gune	47,80
Urtekoa 26 gune 1	219,30
Urtekoa 26 2 gune	255,50
Urtekoa 26 3 gune	292,00
Hilekoa Gazte gune 1	29,00
Hilekoa Gazte 2 gune	34,00
Hilekoa Gazte 3 gune	39,00
Gizatrans gune 1	0,33
Gizatrans 2 gune	0,33
Gizatrans 3 gune	0,33
Egunekoa	4,60
Joan-etorria gune 1	3,00
Joan-etorria 2 gune	3,40
Joan-etorria 3 gune	3,50

Bigarrena.– Erabaki honek 2016ko urtarrilean 1etik izango ditu ondorioak.

Ebazpen honek administrazio-bideari amaiera ematen dio; beraz, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dakioke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta hilabete biko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abenduaren 1a.

Euskadiko Prezioen Batzordeko burua,
JOSÉ M.ª BARRUTIA LEGARRETA.